

TOLOSALDEKO EMAKUMEEN ETXEA GARATZEKO PROZESUA

TALDE ERAGILEAREN 3. BILERAREN AKTA

Eguna: 2021-09-22

Ordua: 18:00-20:30

Lekua: Tolosako Amaro azoko auzo-etxe lokala

Partaideak:

PARTE-HARTZAILEAK

Tolosaldeko emakume-elkarteetako, eragile feministetako nahiz norbanako gisa parte hartzen duten emakumeak. Guztira 14 emakume.

Elhuyarreko teknikariak (bi teknikari)

Gai zerrenda:

1.- SARRERA

Bilerara lehen aldiz etorri den emakume bat egon denez, erronda azkarra egin dugu gure buruak aurkezteko. Ondoren, **girotzeko dinamika** egin dugu: binaka jarrita bizitzako plazer txiki bat partekatu dugu.

Ondoren, gaurko **bileran landuko ditugun gaiak** aurkeztu ditugu; eta gogoratu dugu komeni dela ahal den neurrian **Talde Eragileko bileretan jarraikortasunez** parte hartzea, lantzen diren gaien haria ez galtzeko.

2.- EMAKUMEEN ETXEAREN ELKARTEA

Talde Eragilearen 2. bileran adostu genuen Etxearen elkartearen sortzea, nortasun juridiko propioa edukita, dirulaguntzak eskatu ahal izateko eta aurrekontu propioa edukitzeko. Elkartearen sortzeko lanak bideratzeko, taldeko hiru partaide hauek boluntario gisa aurkeztu zuten euren burua: Ixiar Carabelosek, Onintza Lasak eta Pilar Garaialde.

Onintzak eta Ixiarrek hartu dute hitza. Elkartearen estatutuak egiterakoan egin dituzten egokitzapen nagusien berri eman digute, eta horiek komentatzen joan gara. Besteak beste, honako hauek adostu ditugu:

- Elkartearen izen bezala **“Tolosaldeko Emakumeen Etxea”** elkartearen jartzea, eta estatutuak aurkezteko orduan Etxearen izena baldin badugu izen hori gehitzea (Lehen puntua).

- Ordezkaritza **idatziz** izendatu daitekeela jasotzea (13. artikulua).

- Arduradun gisa **lehendakaria, idazkaria eta diruzaina** zehaztu dira (14. artikulua).

Behin zehaztapen horiek emandakoan lantaldeko partaideei egindako lana eskertu diegu, eta aurreikusitako **arduradunak izendatzeko boluntariorik** dagoen galdetu dugu. Gogorarazi dugu lehendakaria eta diruzaina “eskuragarri” dauden emakumeak izatea komeni dela, Etxera gerturatu daitezkeenak paperak sinatzera eta abar. Izendapen horiek egiteko interesgarria izan daitekeela aipatu dugu eskualdeko ikuspegia kontuan hartzea, eta adina bezalako faktoreei erreparatzea.

Bileran ez da boluntariorik atera, eta adostu dugu **akta bidaltzearekin batera epealdia zabalduko** dugula boluntarioen proposamenak jasotzeko, eta nahi izanez gero, baita **estatutuetan ekarpenak egiteko** ere.

4.- ETXEAREN ERABILTZAILAK

Talde Eragilearen 2. bileran **erregelamenduaren hezurdura** zehaztu genuen, eta adostu genuen 1. fasean landutako hainbat alderdi berriz erreparatuko genituela balizko egokitzapenak egiteko; nagusiki, Etxearen erabiltzaileen atala gehiago sakontzeko beharra ikusi zen. Gai hau bukaeran lantzea eskatu bazen ere, ikusten dugu komeni dela gaiari heltzea, bestela beste gai batzuetan aurrera egin ezinda geratuko garelako.

Etxearen erabiltzaileen inguruan, Talde Eragilearen 2. bileran egon ziren **eztabaidagai nagusiak eta egindako proposamenak gogorarazi** ditugu (*OHARRA: Ikusi 2. bileraren akta).

Gizonek Etxean egin dezaketen erabileraren inguruan, Tolosako Udalak argi utzi nahi izan du ekipamendu publikoa izango dela, helburu nagusia emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea edukiko duena eta, beraz, helburu horrekin bat egiten duten taldeek eta pertsonak tokia eduki beharko luketela Etxean; zentzu honetan, baita Berdintasun Saitetik bideratzen diren hainbat egitasmok (horietako batzuetan gizonek ere parte hartzen dute) ere.

1. fasean adostu zena gogoratu dugu, eta beste Etxe batzuetan ikusitakoa aintzat hartuta, Etxearen printzipio orokorrak kontuan hartuta, eta zehaztaperenetan sakondu ordez ikuspegi zabalagoa jasoz eta aurrera egiteko bokazioarekin, **erabiltzaileen inguruko proposamena aurkeztu** dugu:

02 ETXEAREN ERABILTZAILAK

Proposamena:

Etxearen erabiltzaile nagusiak 16 urtetik gorako **emakumeak** izango dira, norbanakoak zein Etxearen kudeaketa-organoetan dauden taldeetakoak. **Era berean, Etxea erabili ahal izango dute emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzearen aldeko jarduerak antolatu nahi dituzten, edo hauetan parte hartu nahi duten edozein taldek, elkartek edo pertsonak, baldin eta adostutako printzipio gidariekin eta helburuekin bat egiten badute.**

Proposamena jasotzen duten orriak banatu dizkiegu, eta norberak proposamenaren inguruan **bakarkako gogoeta** egiteko tarte utzi dugu. Ondoren, **4 talde osatu** ditugu eta lanketa egin dugu galdera hauek abiapuntu gisa hartuta:

- Zer nabarmenduko zenuke positiboki?
- Zerbaitek sortzen dizu zalantza?
- Zerk lagundu dezake zalantza horiek argitzen?

Talde handira itzulita, **talde bakoitzak egindako lana partekatu** dugu:

1. TALDEA

- Definizio orokorragoa egitea egoki ikusi dugu, eta ondoren praktikan kasuan kasu aztertuko da. Ontzat ematen dugu proposamena.



2. TALDEA

- Adostasunaren alde urrats bat egiteko saiakera gisa ikusi dugu, baina zalantza sortzen digu erabiltzaileak berdintasunarekin lerratuta dauden pertsonak eta taldeak direla norik ebatziko duen.
- Bestalde, ulertzen dugu partaidetza-prozesua egiten dela Etxearen inguruko alderdiak adosteko. Zentzu honetan, ez dugu egoki ikusten Udalak alde zuzeneko baldintza batzuk ezartzea erabiltzaileen inguruan, eta horien inguruko zehaztapenak erabakitzea.
- Beste **proposamen bat** landu dugu:

Etxearen erabiltzaile nagusiak 16 urtetik gorako emakumeak izango dira, norbanakoak zein Etxearen kudeaketa-organoetan dauden taldeetakoak.

Etxearen jarduerak emakumeei zuzendutakoak izango dira, oro har, eta hartzailea edo xede-taldea zein den zehaztuta ez dagoenean, emakumeei zuzendutakoa dela ulertuko dugu.

Emakumeek Etxea bere egindakoan eta horretarako unea dela adostutakoan hasiko da Etxea jarduera mistoak antolatzen.

Egoki baloratzen den unean, mistoak diren edo gizonei zuzendutako jarduerak antolatzeko aukera egongo da. Hala denean:

- *Argi eta garbi adierazi behar da jarduera mistoa edota gizonezkoei zuzendutakoa dela.*
- *Beti egongo dira zuzenki lotuta feminismoarekin.*

3. TALDEA

- Egokia iruditu zaigu emakume hitzari asteriskoa kentzea, sortutako eztabaidari irtenbide ona eman zaiola uste dugu.
- Zalantza eta ondoeza sortzen digu gizonen erabileraren inguruan hitz egiteak Etxearen sorrera-prozesuan, gizonen parte hartzen duten talde batzuek puntualki bertan parte hartzea ez dugu gaizki ikusten, baina maskulinitateak lantzen dituen gizon-talde batek iraunkorki bertan parte hartzea ez zaigu ondo iruditzen; Etxea emakumeen espazio publiko eta soziala izango delako.

4. TALDEA

- Elhuyarrek proposatutako definizioa aurrekoa baino egokiagoa iruditu zaigu, zabalagoa da.
- Zalantza sortzen digun alderdia da nork eta nola erabakiko duen gizonen parte-hartzea; zentzu honetan definizio oso malgua ematen da. Gure ustez, jarduera gehienak emakumeentzat soilik izan behar dira horrek ahalbidetuko duelako espazio seguruak eta goxoak sortzea.

Behin taldeek landutakoa azaldutakoan, 2. taldeak egindako proposamena abiapuntu hartu dugu, eta amaierako esaldian “berdintasuna eta feminismoa” jasotzea adostu dugu, feminismoa ulertzeko era ezberdinak egon daitezkeelako, eta auzia emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzea dela nabarmentzeko. Ondorioz, **definizio hau adostu** dugu:

Etxearen erabiltzaile nagusiak 16 urtetik gorako emakumeak izango dira, norbanakoak zein Etxearen kudeaketa-organoetan dauden taldeetakoak.

Etxearen jarduerak emakumeei zuzendutakoak izango dira, oro har, eta hartzailea edo xede-taldea zein den zehaztuta ez dagoenean, emakumeei zuzendutakoa dela ulertuko dugu.

Emakumeek Etxea bere egindakoan eta horretarako unea dela adostutakoan hasiko da Etxea jarduera mistoak antolatzen.

Egoki baloratzen den unean, mistoak diren edo gizonei zuzendutako jarduerak antolatzeko aukera egongo da. Hala denean:

- *Argi eta garbi adierazi beharko da jarduera mistoa edota gizonezkoei zuzendutakoa dela.*
- *Beti egongo dira zuzenki lotuta berdintasunarekin eta feminismoarekin.*

Besteak beste, aipatu da diru publikoa banatzeko beste kasu batzuetan ere irizpideak ezartzen direla (adib. Topagunean ezin dute helduak sartu), eta kasu honetan emakumeentzako ekipamendua izaki, **emakumeek erabiltzea lehenetsi** behar dela; hasieran hartu behar da denbora bat emakumeek Etxea bere egiteko, eroso sentitzeko. Honenbestez, egun Berdintasun Sailak bultzatuta gizonek parte hartzen dituzten egitasmoak, hasieran behintzat, orain arte egiten diren espazioetan garatzea proposatzen da.

Bestalde, aipatu da **Etxean egiteko jarduera eta ekimenen proposamenak Talde Eragilean aztertzea** jaso genuela kudeaketa-ereduan, eta dinamizatzaillearen profila lantzerakoan ere kontuan hartu dezakegula.



5. ERABILTZAILEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

Erabiltzaileen **eskubide eta betebeharren proposamena** aurkeztu dugu, 1. fasean landutakoa aintzat hartuta:



Erabiltzaileak_eskub._
beteb._propo.pdf


Ondoren, norberak bere gogoeta egin, eta ekarpenak egiteko tartea utzi dugu. Ekarpenak post-itetan idazteko eskatu diegu, eta eskubide eta betebeharrak jasotzen diren papelografo handian itsasteko.

Ekarpen hauek jasotzea adostu dugu (letra lodiz -"negritaz"- daude egindako moldaketak):

- **ESKUBIDEAK**

- Etxearen erabiltzaileek Etxeak eskaintzen dituen zerbitzu, baliabide eta jardueretan parte hartzeko eskubidea izango dute; **beharrezkoa den kasuetan aldez aurretik eguna eta ordutegia adostuz.**

- Etxearen erabiltzaileek Etxearen eguneroko jarduerarekin lotuta egokiak iruditzen zaizkien ekarpen eta iradokizunak egiteko eskubidea izango dute, Talde Eragileko partaideekin harremanetan jarrita.
 - Etxearen erabiltzaileek **gune seguru** batean egoteko eskubidea izango dute, **eta** konfidentziasuna bermatuko zaie.
- **BETEBEHARRAK**
 - Etxearen printzipio orokorrekiko eta gainerako erabiltzaileekiko errespetuz eta konfidentziasunez jokatzea.



6. BETERIK

- Aurreikusitako hurrengo **bileren berri** eman dugu:
 - **Lantalde Politiko Teknikoaren** bilera: irailaren 27an (***Oharra:** azkenean atzeratu egin da).
 - **Talde Eragilearen** hurrengo bilera: **azaroaren 17an arratsaldeko 18:00etan** Amaroizko auzo-etxe lokalean.

7. BILERAREN BALORAZIOA

Bukatzeko, **bilera baloratzeko** balorazio-orriak banatu ditugu. Hauek dira jasotako balorazioak 1-5 eskalan, 1= oso txarra eta 5= oso ona dela aintzat hartuta:

BALORAZIO-ALDAGAIA	BATEZ BESTEKO PUNTUAZIOA (1-5)
Emankorra	4,4
Gardena	4,4
Konfiantzan oinarritutakoa	4
Hezteko eta garatzeko balio duena	4
Harreman horizontaletan/ahizpatasunean oinarritutakoa	4,4
Parte-hartzailea	4,7

- **Zerk sentiarazi zaitu ongi?**
 - Aurrerapausoak eman ditugu.
 - Eztabaidatzeko goxotasunak eta parte-hartzeak.
 - Giroak.
 - Guztiok adostasunerako jarrera edukitzeak. Gaur dena ondo.
 - Hitz egiteko izandako askatasunak.
 - Entzumena gure artean asko hobetu dela.

